Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2026-10-30
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2026-11-05
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00089/2026 - Data/Fecha: 2026-11-05
Sin./Fdo.: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-11-05
GZko 21.gaia onartuta - Aprobado, asunto 21) de OD

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, zeinaren bidez onartzen baitira foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta bigarren deialdia, 2026ko ekitaldian, ikus-entzunezko proiektuen preprodukzio, produkzio eta sustapen gastuak finantzatzeko.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la segunda convocatoria de subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción, producción y promoción de proyectos audiovisuales, durante el año 2026.

Kultura sustatzea eta herritarren esku jartzea: horra administrazio publikoek ezinbestez hartu beharreko konpromiso bat. Eta, hura gauzatzeko, baliabide egokiak bideratu behar dira, eta, besteak beste, sustapen eta babes-neurriak hartu, kultur jardueraren garapena eta aurrerabidea bermatuko badira.

La promoción de la cultura y el acceso de la ciudadanía a la misma conlleva el compromiso ineludible de las administraciones públicas de establecer los instrumentos para que ello sea posible, lo cual debe materializarse, entre otras actuaciones, mediante medidas de fomento y protección que garanticen la existencia, desarrollo y progreso de la actividad cultural.

2019. urtean, Bizkaiko Foru aldundiak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, beharrezko jo zuen Bizkaiko kultura hedarazten duten ikus-entzunezko dokumentalen produkzioa sustatzea, gure kultura ezagutzera emateko eta Bizkaiko enpresek egindako produkzioa audiobisuala sostengatzeko.

En el año 2019, la Diputación Foral de Bizkaia, a través de la Dirección General de Cultura, consideró necesario promover la realización de documentales audiovisuales que difundieran la cultura de Bizkaia con el fin de darla a conocer, además de apoyar a la producción audiovisual realizada por empresas de Bizkaia.

Harrezkero, dirulaguntza lerro hori etengabe egon da presente foru politika kulturalaren esparruan.

Desde entonces, esta línea subvencional ha sido una constante en el ámbito de la política cultural foral.

Kontuan izanik XXI. mendeko gizartean ikus-entzunezkoek zer-nolako rola betetzen duten dibulgaziorako eta sentsibilizazio sozialerako tresna gisa, Bizkaiko Foru Aldundiak, balizko beste laguntza instituzional batzuen neurri osagarri gisa, sektore horri ematen dion babesa handitzeaz gain (urteko deialdia funtsean aldatuz), beharrezkotzat jo zuen ikus-entzunezko proiektuen preprodukzioa eta sustapena bultzatzea.

Teniendo en cuenta el papel que en la sociedad del siglo XXI desempeña el medio audiovisual como instrumento de divulgación y sensibilización social, la Diputación Foral de Bizkaia, como medida complementaria de otras potenciales ayudas institucionales, además de ampliar su apoyo a este sector modificando de manera sustancial su convocatoria de carácter anual, consideró necesario promover la preproducción, y la promoción de proyectos audiovisuales.

Horrela definitutako esparru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, ikus-entzunezko proiektuak finantzatzeko

En este marco así definido, la Diputación Foral de Bizkaia, a través de la Dirección General de Cultura, ha venido convocando, con carácter anual,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dirulaguntzen deialdia egin du urtero. Lehen, laguntza-lerro hori bi dekreturen bidez artikulatzen zen, eta iaztik dekretu bakar batean, preprodukzioko, produkzioko eta sustapeneko faseak bilduz.

subvenciones para la financiación de proyectos audiovisuales. Anteriormente, esta línea de ayudas se articulaba a través de dos decretos y desde el año pasado en un único decreto que comprende las fases de preproducción, producción y promoción.

2026ko ekitaldi honetan, maiatzaren 29an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 50/2026 Foru Dekretua, 2026an ikus-entzunezko proiektuen preprodukzio-, produkzio- eta sustapen-gastuak finantzatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartzen dituena.

En este ejercicio 2026, se publicó en el Boletín Oficial de Bizkaia con fecha 29 de mayo, el Decreto Foral 50/2026, de 21 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción, producción y promoción de proyectos audiovisuales, durante el año 2026.

Deialdi honek parte-hartze handia eragin du, eta eskabide ugari aurkeztu dira. Horiek baloratu ondoren, kalitate tekniko eta interes publiko handia eta Bizkaiko Foru Aldundiak lortu nahi dituen helburuetara egokitzen direla egiaztatu da. Hala ere, deialdi horretarako aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa ez da nahikoa izan laguntza merezi duten proposamen guztiei erantzuteko.

Esta convocatoria ha suscitado una elevada participación, habiéndose presentado un número significativo de solicitudes que, tras su valoración, han acreditado una notable calidad técnica, interés público y adecuación a los objetivos perseguidos por la Diputación Foral de Bizkaia. No obstante, la dotación económica prevista para dicha convocatoria ha resultado insuficiente para atender todas las propuestas merecedoras de apoyo.

Egoera horri erantzuteko, jarduketa publikoaren irismena handitzeko eta Bizkaiko ikus-entzunezkoen sektorea sustatzen nabarmen laguntzen duten proiektuak gauzatzen laguntzeko, egokitzat jotzen da aurrekoaren helburu bererako dirulaguntzen bigarren deialdi bat onartzea, aurrekontu-zuzkidura berri baten kargura finantzatua, egiaztatu baita maila eta interes handiko eskabide asko daudela, eta lehen deialdian ezin izan zirela aintzat hartu, kreditu nahikorik ez zegoelako.

Con el fin de dar respuesta a esta situación, ampliar el alcance de la actuación pública y favorecer la ejecución de proyectos que contribuyen de manera significativa a la promoción del sector audiovisual de Bizkaia, se considera oportuno aprobar una segunda convocatoria de subvenciones con el mismo objeto que la anterior, financiada con cargo a una nueva dotación presupuestaria, al haberse constatado la existencia de un elevado número de solicitudes de alto nivel e interés que no pudieron ser atendidas en la primera convocatoria debido a la insuficiencia de crédito disponible.

Deialdi berri horrek kalitatezko proiektu gehiagori erantzutea ahalbidetuko du, ekintza publikoaren eraginkortasuna indartuz eta hasierako deialdia eragin zuten interes orokorreko helburuak hobeto lortzea bermatuz.

Esta nueva convocatoria permitirá atender un mayor número de proyectos de calidad, reforzando la eficacia de la acción pública y garantizando una mejor consecución de los fines de interés general que motivaron la convocatoria inicial.

Era berean, deialdi hau Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Urteko Araugintza Planean aurreikusitako laguntza-lerro baten esparruan garatzen da. Bigarren deialdi honek, aurrekoaren helburu eta eduki berarekin eta finantzaketa propioz hornituta, laguntza horiek sortutako interes handiari

Asimismo, la presente convocatoria se desarrolla en el marco de una línea de ayudas ya prevista en el Plan Anual Normativo del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte. Esta segunda convocatoria, con el mismo objeto y contenido que la anterior y dotada de financiación propia, permite dar respuesta al elevado

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erantzuteko aukera ematen du, bai eta kultura- eta ikus-entzunezko sektorearentzat interesgarriak diren proiektu gehiago gauzatzeko aukera ere, jada ezarritako esparru arautzaileari eutsiz.

interés suscitado por estas ayudas y favorecer la ejecución de un mayor número de proyectos de interés para el sector cultural y audiovisual, manteniendo el marco regulador ya establecido.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio proposatutako xedapen orokorraren xede den gaiari buruzko eskumena, hala ematen baitu aditzera azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoak. Lege horren 7.a.13) artikuluan, zehazki, eskumen esklusiboa ematen zaie lurraldeoi, besteak beste, interesekoak diren bertako kultura-organismoak sortu eta mantentzeko arloan.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que atribuye a estos últimos, en su artículo 7.a.13), competencia exclusiva entre otras, en materia de creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del territorio histórico.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinak onesten baitu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua, eskumen hau esleitzen dio sail horri: kulturari buruzko proiektuak sustatzea.

Por su parte, el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, atribuye a este departamento la competencia para promover proyectos relativos a la cultura.

Dekretu hau bi titulutan egituratu da. Lehenengo tituluan, hurrengo tituluari dagozkion estipulazio komunak ezartzen dira; bigarrenean, estipulazio espezifikoak xedatzen dira:

Este decreto se ha estructurado en dos títulos. En el primer título se establecen las estipulaciones comunes al siguiente título, en el que se establecen estipulaciones específicas:

I. titulua Estipulazio komunak.

Título I Estipulaciones comunes.

I. kapitulua Xedapen orokorrak.

Capítulo I Disposiciones generales.

II. kapitulua Araubide juridikoa.

Capítulo II Régimen jurídico.

III. kapitulua Prozedura.

Capítulo III Procedimiento.

IV. kapitulua Dirulaguntzen kudeaketa eta justifikazioa.

Capítulo IV Gestión y justificación de las subvenciones

II. titulua Estipulazio espezifikoak.

Título II Estipulaciones específicas.

I. kapitulua Preprodukzio gastuak finantzatzeko dirulaguntzak.

Capítulo I Subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción.

II. kapitulua Produkzio gastuak finantzatzeko dirulaguntzak.

Capítulo II Subvenciones destinadas a financiar los gastos de producción de obras audiovisuales.

III. kapitulua Sustapen gastuak finantzatzeko

Capítulo III Subvenciones destinadas a financiar los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dirulaguntzak.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxezkien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzen ditu, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.

gastos de promoción.

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.

3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, proposamenak aurkeztea Foru Aldundiari, honek onets ditzan haien sailaren berezko gaiei buruzko foru-dekretu proiektuak. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak onesteko. Eta, azkenik, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Gobernu Kontseiluari dagokiola haiek egintza bakarrean onestea.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Foru Aldundiaren dirulaguntzen oinarriak eta bigarren deialdi publikoa onestea.*

Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntza batzuen oinarri arautzaileak eta bigarren deialdia onartzen dira. Laguntza horien helburua izango da 2026ko ekitaldian, ikus-entzunezko proiektuen preprodukzio, produkzio eta sustapen gastuak finantziatzeko.

Azken xedapenak

Azken xedapenetatik lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

2. Informe jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Informe de control económico.

5. Informe de legalidad.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los diputados forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un solo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la segunda convocatoria pública de subvenciones forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la segunda convocatoria de subvenciones forales que se conceden por el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, destinadas a financiar los gastos de preproducción, producción y promoción de proyectos audiovisuales, durante el año 2026.

Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion dirulaguntzak ematea.

1. Se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskabideak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2026KO EKITALDIAN, IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUEN PREPRODUKZIO, PRODUKZIO ETA SUSTAPEN GASTUAK FINANTZIATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA BIGARREN DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y SEGUNDA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A FINANCIAR–LOS GASTOS DE PREPRODUCCIÓN, PRODUCCIÓN Y PROMOCIÓN DE PROYECTOS AUDIOVISUALES, DURANTE EL AÑO 2026.

I. TITULUA

Estipulazio komunak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Deialdi honen xedea da 21., 24. eta 26. oinarrietan ezarritako ikus-entzunezko proiektuen preprodukzio, produkzio eta sustapen gastuen zati bat finantzatzeko dirulaguntzak ematea 2026ko ekitaldian.

2. Dirulaguntzen modalitateak hauek dira:

a) Preprodukzio gastuak finantzatzeko dirulaguntzak.

b) Produkzio gastuak finantzatzeko dirulaguntzak.

c) Sustapen gastuak finantzatzeko dirulaguntzak

3. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Hezkuntza-sistemako ikaskuntza-prozesuei lotutako ikus-entzunezko proiektuak.

b) Hizkuntzak ikasteko egiten diren ikus-entzunezko proiektuak.

c) Turismoa sustatzeko egiten diren ikus-entzunezko proiektuak.

TÍTULO I

Estipulaciones comunes

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. La presente convocatoria tiene como objeto la concesión de subvenciones destinadas a financiar parcialmente los gastos de preproducción, producción y promoción de los proyectos audiovisuales establecidos en las bases 21, 24 y 26, durante el ejercicio 2026.

2. Las modalidades de subvención son las siguientes:

a) Subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción.

b) Subvenciones destinadas a financiar los gastos de producción.

c) Subvenciones para financiar gastos de promoción.

3. Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Los proyectos audiovisuales vinculados a procesos de aprendizaje en el sistema educativo.

b) Los proyectos audiovisuales dirigidos al aprendizaje de idiomas.

c) Los proyectos audiovisuales dirigidos a la promoción turística.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

d) Sexuarengatik diskriminazioa dakarten ikus-entzunezko proiektuak.

e) Abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 9.2 artikuluaren arabera X pelikularen kalifikazioa jasotzen duten proiektuak.

f) Serieak eta dokuserieak, preprodukzio modalitaterako izan ezik.

g) Talent show-ak, lehiaketak, bidaia-programak, *reality show-ak* edo antzeko entretenimendu-programak.

4. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa..

Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, dirulaguntza eskatu duen erakundearen izenean dauden fakturen bidez egiaztatutako transakzio ekonomiko bat dakartenak baino ez dira onartuko, eta beste erakunde batzuek zuzenean ordainduko dituztenak ez dira onartuko.

5. Honako hauek, berriz, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) 2026an egindako gastuak, aurreko urteko deialdiari egotzitakoak, baldin eta 2025ean diruz lagundutako proiektua gauzatzeko epea luzatu egin bada.

b) Dirulaguntzaren eskatzailea ez den beste erakunde batek zuzenean ordaindutako gastuak.

c) Gauzatan ordaindutako babesa.

d) Ekipo-ondasunak eskuratzea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru-dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

e) Banku-kontuetako interes zordunak.

f) Interesak, errekarguak eta administrazio-zehapenak

d) Los proyectos audiovisuales que discriminen por razón de sexo.

e) Aquellos proyectos que, de acuerdo con el artículo 9.2 de la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, reciban la calificación de película X.

f) Las series y docuseries, salvo para la modalidad de preproducción.

g) Talent shows, concursos, programas de viajes, *reality shows* u otros programas de entretenimiento similares.

4. Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que se determinen en cada una de las modalidades, respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios, y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

Sólo se admitirán como gastos subvencionables, aquellos que supongan una transacción económica constatada con facturas a nombre de la entidad solicitante de la subvención, no siendo aceptados los que vayan a ser abonados directamente por otras entidades.

5. No tendrán la consideración de gastos subvencionables:

a) Aquellos gastos realizados en el año 2026 imputados a la convocatoria del año anterior, cuando la ejecución del proyecto subvencionado en 2025 hubiera sido objeto de prórroga.

b) Los gastos abonados directamente por otra entidad que no sea la solicitante de la subvención.

c) El patrocinio en especie.

d) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral.

e) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

f) Intereses, recargos y sanciones administrativas y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta zehapen penalak.

g) Prozedura judizialen gastuak.

h) BEZa. Bai eskabidearen aurrekontuan, bai dirulaguntzaren justifikazioarekin aurkeztuko den aurrekontu burutuan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak.

i) Onuradunak merkataritza-eragiketetan izandako gastuak, aplikatu beharreko araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu ez direnak, edo, halakorik ezean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritakoa.

j) Oro har, maiatzaren 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluarekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

6. Foru-dekretu honen helburua eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea da; horregatik ez dira inoiz finantzatuko jardueren ondoriozko gastu guztiak.

2. oinarria. *Onuradunak.*

1. Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira produktore gisa jarduten duten sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, sozietate kooperatiboak, sozietate zibilak eta interes ekonomikoko elkarteak, bai eta enpresa-jarduerak gauzatzen dituzten pertsona fisikoak ere, betiere maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko ustezkoren batean ez badaude eta eskabideak aurkeztean honako eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) Egoitza soziala eta/edo fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Xede soziala ikus-entzunezko produkzio izatea.

c) Alta emanda egotea EJZn, dagokion epigrafean: 961.1.

penales.

g) Gastos de procedimientos judiciales.

h) El IVA. Tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención deberán figurar los importes de gasto sin IVA.

i) Los gastos en los que haya incurrido la beneficiaria en sus operaciones comerciales que no se hayan abonado en los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que le sea de aplicación, o, en su defecto, en lo establecido en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

j) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

6. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de las actividades.

Base 2. *Beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral tanto las sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades cooperativas, las sociedades civiles y las agrupaciones de interés económico, como las personas físicas que ejerzan actividades empresariales, que no estando incursas en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, actúen como productores y reúnan los siguientes requisitos a fecha de presentación de la solicitud:

a) Tener el domicilio social y/o fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Tener como objeto social la producción audiovisual.

c) Estar de alta en el correspondiente epígrafe del I.A.E.: 961.1

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

d) Dirulaguntza koprodukzio baterako eskatzen bada, eskatzaileak produkzioaren % 25eko partaidetza izan beharko du gutxienez.

d) En el caso que la subvención se solicite para una coproducción, la solicitante deberá tener una participación de, al menos, el 25 % de la producción resultante.

e) Halaber, Foru Administrazioak 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.3 bis merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari lotutako irabazi-asmoa duten pertsona juridiko edota fisiko pribatuek ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

e) Asimismo, de acuerdo al artículo 12.3 bis, de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, para aquellas subvenciones por importe superior a 30.000,00 euros, las personas jurídicas y/o físicas privadas con ánimo de lucro sujetas a la Ley 3/2004 de 29 de diciembre, por las que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, deberán acreditar que cumplen con los plazos de pago.

2. Foru-dekretu honen bidez araututako deialditik kanpo geratuko dira ondasun-erkidegoak eta Kode Zibilaren 1669. artikuluan aipatutako sozietate zibilak.

2. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente decreto foral las comunidades de bienes, y sociedades civiles referidas en el artículo 1669 del Código Civil.

3. Era berean, deialdi honetatik kanpo geratzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 50/2026 Foru Dekretuaren babesean diruz lagundutako onuradunak eta proiektuak. Foru Dekretu horren bidez, 2026an ikus-entzunezko proiektuen preprodukzio-, produkzio- eta sustapen-gastuak finantzatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartu ziren.

3. Igualmente, quedan excluidas de la presente convocatoria las beneficiarias y los proyectos subvencionados al amparo del Decreto Foral 50/2026, de 21 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción, producción y promoción de proyectos audiovisuales durante el año 2026.

4. Era berean, honako pertsona fisika edo juridiko hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

4. Asimismo, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención aquellas personas físicas o jurídicas:

a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

a) Que hayan sido objeto de sanción administrativa, laboral o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el período impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad.

b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

b) Cuyos fines y objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan

c) Que hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos, durante el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

d) Hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten protokoloak eta/edo dokumentuak izateko betebeharra bete ez dutenak.

e) Europar Batasuneko Batzordeak aldez aurretik erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela eta krisian dagoen enpresa bat ez dela, berreskuratzeko agindu baten mende daudela, krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauen definizioaren arabera (EBAO C249, 31 – 07 – 2014).

periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

d) Que, en su caso, no cumplan con la obligación de disponer de planes de igualdad y protocolos y/o documentos que recojan las medidas para prevenir y combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y las violencias sexuales en los términos establecidos por la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

e) Que estén sujetas a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común y que no se trata de una empresa en crisis, de acuerdo con la definición de las Directrices sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas no financieras en crisis (DOUE C249, 31–07–2014).

II. KAPITULUA

Araubide juridikoa

CAPÍTULO II

Régimen jurídico

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

1. Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

2. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko

Base 3. *Normativa aplicable.*

1. Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

2. La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. Tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. Titulua ere.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV de su reglamento de desarrollo.

III. KAPITULUA

Prozedura

CAPÍTULO III

Procedimiento

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluaren 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoarekin bat, foru-dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

https://www.ebizkaia.eus/es/hasiera

Eskatzaile bakoitzak, gehienez, eskabide bat aurkeztu ahal izango du modalitate bakoitzeko. Eskabide bakoitzak proiektu bakarra izan beharko du.

Modalitate bakoitzeko eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, aurkeztutako azkena bakarrik hartuko da kontuan, eta aurrekoak ezetsi egingo dira.

2. Eskabideak aurkezteko epea bost (5) egun baliodunekoa izango da, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarriak definitzen dituzten baldintzak.

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 y 3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

Cada solicitante podrá presentar como máximo una solicitud por modalidad. Cada solicitud deberá contener un único proyecto.

En el caso de presentar más de una solicitud por modalidad sólo se tendrá en cuenta la última presentada desestimándose las anteriores.

2. El plazo para la presentación de solicitudes será de cinco (5) días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente decreto foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.

3. La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, deialdi honen berariazko ereduetara egokitu beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, nahitaez :

a) Hala badagokio, erakundearen estatutuak edo erakundea eratu dela egiaztatzen duten agiriak, erakundearen xedea eta helbide soziala adierazita.

Aurreko dokumentazioa ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada, eta ez badu aldaketarik izan.

b) Produkzio gastuak finantzatzeko dirulaguntzen modalitatean:

1) Azalpen-memoria eta kronograma.

2) Ikus-entzunezko proiektuaren fitxa teknikoa eta artistikoa.
Gainera, dirulaguntza eragin duen ikus-entzunezko proiektuaren hizkuntza adierazi beharko da.

c) Proiektuaren preprodukzio- eta sustapen gastuak finantzatzera bideratutako dirulaguntzen modalitateetan, gutxienez, aurreikusitako edo gauzatutako preprodukzio- edo sustapen jarduera guztiak deskribatzen dituen azalpen-memoria eta horien kronograma barne hartuta.

Horrez gainera, dirulaguntza eskatzea eragiten duen ikus-entzunezko proiektuaren hizkuntza adierazi beharko da.

d) Era berean, sustapen gastuak finantzatzeko dirulaguntzen kasuan, ikus-entzunezko proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko I. eta II. eranskinetan

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse a los modelos específicos de la presente convocatoria, disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación obligatoria:

a) En su caso, los estatutos o documentación acreditativa de la constitución de la entidad, donde deberán figurar el objeto y domicilio social de la misma.

Dicha documentación no se aportará en caso de haber sido presentada con anterioridad, y siempre que no hubiera sufrido modificación alguna.

b) En la modalidad de subvenciones destinadas a financiar los gastos de producción:

1º Memoria explicativa y cronograma.

2º Ficha técnica y artística del proyecto audiovisual.

Se deberá, además, señalar el idioma del proyecto audiovisual que motiva la subvención.

c) En las modalidades de subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción y promoción descripción del proyecto que, al menos, incluya una memoria explicativa que describa todas y cada una de las actuaciones de preproducción o promoción previstas o llevadas a cabo, y cronograma de las mismas.

Se deberá, además, señalar el idioma del proyecto audiovisual que motiva la subvención.

d) Asimismo, en el caso de subvenciones para financiar gastos de promoción, se deberá adjuntar documento que acredite fehacientemente que el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta/edo zinema-aretoetan jasotako jaialdietako batean edo sari-banaketetan 2026an programatu dela edo programatuko dela modu frogagarrian egiaztatzen duen dokumentua erantsi beharko da.

proyecto audiovisual se ha programado o se va a programar durante 2026 en alguno de los festivales o entrega de premios recogidos en los anexos I. y II. y/o en salas de exhibición cinematográfica de la Comunidad Autónoma Vasca.

e) Hala badagokio, legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko dena.

e) En su caso, la representación legal o voluntaria que podrá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, proiektuak baloratu ahal izateko:

3. Las solicitudes deberán ir acompañadas, en su caso, de la siguiente documentación a fin de poder valorar los proyectos:

a) Preprodukzio eta produkzio gastuak finantzatzeko dirulaguntzen modalitateetan:

a) En las modalidades de subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción y producción:

1) Proiektuaren kalitatea eta balio artistikoa egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1º Documentación a presentar para acreditar, en su caso, la calidad y valor artístico del proyecto:

- Proiektuaren testuingurua.
- Contexto del proyecto.

- Proiektuaren informazio orokorra, haren generoari, formatuari (filma, film laburra, etab.) eta xede-publikoari buruzkoa. Istorioaren atzean dagoen inspirazioaren edo motibazioaren azalpen labur bat ere bai.
- Información general del proyecto, sobre su género, formato (película, cortometraje, etc.), y su público objetivo. También una breve explicación de la inspiración o motivación detrás de la historia.

- Zuzendaritza proposamena edo estilo bisuala: proiektuaren estilo bisualari edo narratiboari buruzko proposamen labur bat, oro har.
- Propuesta de dirección o estilo visual: una breve propuesta sobre el estilo visual o narrativo del proyecto, en términos generales.

- Sinopsi edo laburpen hedatu bat (gehienez 10 orrialde), argi eta zehatz garatu eta azalduko dituena obraren bilbea, pertsonaia nagusiak eta mezu edo gai nagusia; proiektuaren egitura, bilbearen funtsezko puntuak, pertsonaia nagusien arkuak eta obraren tonua zehaztuko ditu.
- Un sinopsis o resumen extendido (máximo de 10 páginas), que desarrolle y explique de manera clara y concisa la trama, los personajes principales y el mensaje o tema central de la obra; especificando la estructura del proyecto, los puntos clave de la trama, los arcos de los personajes principales y el tono de la obra.

2) Esperientzia egiaztatzeko aurkeztu beharreko agiriak:

2º Documentación a presentar para acreditar, en su caso, la experiencia:

- Zuzendaritza. Zuzendutako proiektuen zerrenda bat aurkeztu beharko da, izenburuekin, datekin eta egindako lanaren deskribapen labur batekin.

  Deialdi hau argitaratu arteko esperientzia konputagarria baino ez da baloratuko.
- Dirección. Se deberá presentar una lista de los proyectos dirigidos, con títulos, fechas y una breve descripción del trabajo realizado.

  Solamente se valorará la experiencia computable hasta la fecha de publicación de la presente convocatoria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Alegatutako esperientzia hori egiaztatzeko, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: lan-kontratua, edo enpresaren ziurtagiria, edo erregistratutako fitxa tekniko ofiziala, edo obraren kredituak edo antzekoa.

Para acreditar dicha experiencia alegada se deberá presentar, junto con la solicitud, prueba documental al efecto: contrato de trabajo, o certificado de empresa, o ficha técnica oficial registrada, o créditos de la obra o análogo.

- Gidoilaria. Gidoien zerrenda bat aurkeztu beharko da, izenburua, datak eta proiektuaren izena adierazita.

- Guionista. Se deberá presentar una lista de los guiones, incluyendo título, fechas y el nombre del proyecto.

Deialdi hau argitaratu arteko esperientzia konputagarria baino ez da baloratuko.

Solamente se valorará la experiencia computable hasta la fecha de publicación de la presente convocatoria.

Alegatutako esperientzia hori egiaztatzeko, eskabidearekin batera, alegatutako obren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da: lan-kontratua, edo enpresaren ziurtagiria, edo erregistratutako fitxa tekniko ofiziala, edo obraren kredituak edo antzekoa.

Para acreditar dicha experiencia alegada se presentará, junto con la solicitud, documentación que acredite la titularidad de las obras alegadas: contrato de trabajo, o certificado de empresa, o ficha técnica oficial registrada, o créditos de la obra o análogo.

- Produkzio-funtzioen arduraduna. Lan egin duen produkzio-proiektuen zerrenda bat aurkeztu beharko da, betetako zereginen deskribapen labur batekin batera (produkzio exekutiboa, produkzioaren koordinazioa, aurrekontuaren kudeaketa, eta abar).

- Persona encargada de funciones de producción. Se deberá presentar una lista de los proyectos de producción en los que se ha trabajado, con una descripción breve de las funciones desempeñadas (producción ejecutiva, coordinación de producción, gestión de presupuesto, etc.).

Deialdi hau argitaratu arteko esperientzia konputagarria baino ez da baloratuko.

Solamente se valorará la experiencia computable hasta la fecha de publicación de la presente convocatoria.

Alegatutako esperientzia hori egiaztatzeko, esperientzia hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da eskabidearekin batera: lan-kontratua, edo enpresaren ziurtagiria, edo erregistratutako fitxa tekniko ofiziala, edo obraren kredituak edo antzekoa.

Para acreditar dicha experiencia alegada se presentará, junto con la solicitud, documentación que acredite dicha experiencia: contrato de trabajo, o certificado de empresa, o ficha técnica oficial registrada, o créditos de la obra o análogo.

3) Aurrekoa gorabehera, oro har, honako hauek aurkeztu ahal dira:

3º Sin perjuicio de lo anterior, en términos generales se puede presentar:

- Curriculum vitae eguneratua, eskatutako lanpostuarekin lotutako lan-esperientzia zehaztuz. Bertan, honako hauek adieraziko dira: betetako kargua; lanpostuaren iraupena (hasiera- eta amaiera-datak); zerbitzuak eman ziren enpresaren edo erakundearen izena, egindako eginkizunen

- Currículum Vitae actualizado, detallando la experiencia laboral relacionada con el puesto solicitado, donde se indique: el cargo desempeñado; la duración del puesto (fechas de inicio y finalización); el nombre de la empresa o entidad para la que se prestaron los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

deskribapen labur batekin batera; parte hartu den proiektu espezifikoak, horietako bakoitzean egindako lanaren norainokoaren deskribapen labur batekin; lortutako sarien adierazpena, eta, hala badagokio, jaialdietan izandako parte-hartzea.

servicios, junto con una breve descripción de las funciones realizadas; los proyectos específicos en los que se haya participado, con una breve descripción del alcance del trabajo realizado en cada uno de ellos; indicación de los premios y galardones conseguidos y la participación en festivales, en su caso.

- Lan-kontratua(k) edo lanbide-harremana egiaztatzen duen dokumentua(k): zuzendari eta gidoigile roletarako, sinatutako lan-kontratuen kopia bat aurkeztu ahal izango da, ikus-entzunezko proiektuekin lotura duela frogatzeko. Produkzio-funtzioen arduradunarentzat, ikus-entzunezko proiektuen produkzioan parte hartu duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ahal izango da (produkzio-kontratuak, lankidetza-akordioak, etab.).

- Contrato(s) laboral(es) o documento(s) acreditativo(s) de la relación profesional: para los roles de director o directora y guionista, se podrá presentar una copia de los contratos de trabajo firmados que demuestren la vinculación con proyectos audiovisuales. Para la persona encargada de funciones de producción, se podrá presentar documentación que acredite su participación en la producción de proyectos audiovisuales (contratos de producción, acuerdos de colaboración, etc.).

- Pertsona horrek lan egin duen enpresa edo erakundeen erreferentziazko ziurtagiriak edo gutunak, honako hauek zehaztuz: betetako lanpostua; lan egindako denbora; egindako lanen deskribapen laburra; pertsona horrek proiektuan benetan parte hartu zuela egiaztatzen duen ziurtagiria, bertan duen rola eta erantzukizuna zehaztuz; egindako lanaren probak edo laginak (ahal denean eta aplikatzekoa denean). Zuzendari eta gidoilarien kasuan, ikus-entzunezko materiala, amaitutako gidoiak edo horien laburpenak aurkeztu ahal izango dira, esperientziaren ebidentzia gisa. Produkzio-funtzioen arduradunarentzat, dokumentuak sar daitezke, hala nola produkzio-aurrekontuak, kronogramak edo produkzio-txostenak.

- Certificados o cartas de referencia de las empresas o entidades en las que la persona en cuestión haya trabajado, en los que se especifique: el puesto desempeñado; el periodo de tiempo trabajado; una breve descripción de las tareas realizadas; la confirmación de que dicha persona participó efectivamente en el proyecto, detallando su rol y responsabilidad en el mismo; pruebas o muestras del trabajo realizado (cuando sea posible y aplicable): En el caso de los directores o directoras y guionistas, se podrá presentar material audiovisual, guiones finalizados o extractos de los mismos que sirvan como evidencia de su experiencia. Para la persona encargada de funciones de producción, se pueden incluir documentos como presupuestos de producción, cronogramas o informes de producción.

4) Dokumentazio gehigarria, hala badagokio:

4º Documentación adicional, en su caso:

- Autonomoa edo freelancea bada, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, lan egin duten proiektuak zehaztuz, kontratuaren edo lankidetzaren iraupenari eta izaerari buruzko informazioa barne.

- Si se trata de una autónoma o freelance, deberán presentar una declaración jurada que detalle los proyectos en los que ha trabajado, incluyendo información sobre la duración y naturaleza del contrato o colaboración.

5) Ibilbide profesionala egiaztatzeko aurkeztu beharreko agiriak:

5º Documentación a presentar para acreditar, en su caso, la trayectoria profesional:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Saria egiaztatzen duen dokumentazio ofiziala, jaialdiaren ziurtagiri ofizial gisa edo sari-jakinarazpen gisa.

- Documentación oficial que acredite el galardón, como un certificado oficial del festival o una notificación de premiación.

6) Berdintasuna egiaztatzeko aurkeztu beharreko agiriak:

6º Documentación a presentar para acreditar, en su caso, la igualdad:

- Lan-kontratua (pertsona hori enpresa edo produktore batek kontratatzen badu), karguaren funtzio espezifikoak zehazten dituena.

  Eskabidea egiteko unean kontraturik formalizatuta ez badago, baina kontratatzeko benetako asmoa badago, horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, justifikazio-fasean kontratuak aurkeztearen baldintzapean.

- Contrato de trabajo (si la persona está contratada por una empresa o productora) en el que se detallen las funciones específicas del cargo.

  En caso de que, en el momento de realizar la solicitud, no se tenga ningún contrato formalizado, pero haya intención real de su contratación, podrá presentarse una declaración responsable al respecto, condicionado a la presentación de los contratos en la fase de justificación.

- Produkzio-etxearen edo enpresaren ziurtagiria, emakumeak proiektuan duen rola adierazten duena.

- Certificado de la productora o empresa en la que se indique el rol de la mujer en el proyecto.

7) Hala badagokio, euskara egiaztatzeko aurkeztu beharreko agiriak:

7º Documentación a presentar para acreditar, en su caso, el euskera:

- Erantzukizunpeko adierazpena, jatorrizko bertsioa euskaraz izango dela edo euskarazko bertsioa egongo dela adieraziz.

- Declaración responsable indicando que la versión original será en euskera o que existirá versión en euskera.

8) Lurraldeko lotura egiaztatzeko aurkeztu beharreko agiriak:

8º Documentación a presentar para acreditar, en su caso, la vinculación en el Territorio:

- Dagokion lurraldean aurreikusitako errodaje-egunen kopurua zehaztuko duen egutegia edo errodaje-plana aurkeztea, errodaje-egun guztiei dagokienez. Dokumentu horrek honako hauek jaso behar ditu: errodaje-jardunaldi bakoitza egiteko aurreikusitako data eta kokapen espezifikoak, aurreikusitako filmaketa-egunen guztizko kopurua eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egingo diren filmaketa-egun espezifikoen kopurua.

- Calendario o plan de rodaje donde se especifique el número de días de rodaje previstos en el territorio correspondiente en relación con el total de días de rodaje. Este documento debe incluir: fechas y localizaciones específicas donde se prevea llevar a cabo cada jornada de rodaje, número total de días de rodaje previstos y número de días de rodaje específicos que se realizarán en el Territorio Histórico de Bizkaia.

- Filmaketa lurraldean bertan egingo dela edo benetan egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango da. Dokumentazio hori honako hauek izan daiteke, besteak beste: tokiko hornitzaileekin egindako

- Se podrá solicitar documentación que acredite que la localización del rodaje se llevará o se ha llevado a cabo efectivamente en el territorio. Esta documentación puede ser, entre otros: contratos con proveedores locales (de alquiler

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kontratuak (ekipamendua alokatzeko kontratuak, kokalekuak edo zerbitzuak lurraldean); filmatzeko baimenak edo filmatzeko lizentziak dagokion lurraldean; tokiko zerbitzuak (adibidez, ekipoak alokatzea, garraioa, langileak, etab.) filmaketa egingo den eremuan kontratatu direla frogatzen duten fakturak edo ordainagiriak.

b) Sustapen gastuak finantzatzeko dirulaguntzen modalitateetan:

1) Sustapen plan xehatua: Planifikatutako sustapen estrategia guztiak deskribatzen dituen dokumentua, zein jaialdi, merkatu, sare sozial eta komunikabide erabiliko diren zehaztuz.

2) Parte hartzeko kontratuak edo akordioak: jaialdi eta merkatuetan parte hartzeko erabakien, gonbidapenen edo berrespenen kopia, proiektua inskribatuta dagoela edo ekitaldi horietan aurkeztuko dela frogatzen duena.

3) Ereduzko sustapen materiala.

4) Sustapen plana kudeatzeko eta gauzatzeko ardura duten emakumeen zerrenda: sustapen planaren kudeaketan eta gauzatzean parte hartzen duen emakume bakoitzaren izena, kargua eta eginkizun espezifikoak zehaztea. Horren barruan sartzen dira, adibidez, marketineko, komunikazioko, diseinuko, sare sozialetako eta abarretako arduradunak.

Dagokion lan-kontratuak edo proiektuan zuzenean inplikatuta daudela ziurtatzen duten merkataritza-kontratuak aurkeztu beharko dira eskabide-fasean edo justifikazio-fasean.

5) Proiektuko emakume enbaxadoreen zerrenda: proiektuaren enbaxadore gisa jarduten duten emakumeen izena zehaztu (aktoreak, zuzendariak, produktoreak, etab.), eta labur azaldu zer rol duten eta zer parte-hartze duten sustapen ekitaldietan. Aipatutako emakumeek proiektua ordezkatu duten jaialdi, elkarrizketa, prentsaurreko edo beste edozein ekitaldi publikotan parte hartu izanari buruzko dokumentazioa egiaztatu behar du eskabide-fasean edo justifikazio-fasean.

de equipo, localizaciones, o servicios en el territorio); permisos de rodaje o licencias de filmación en el territorio correspondiente; facturas o recibos que demuestren la contratación de servicios locales (por ejemplo, alquiler de equipos, transporte, personal, etc.) en la zona donde se llevará a cabo el rodaje.

b) En las modalidades de subvenciones destinadas a financiar los gastos de promoción:

1º Plan de promoción detallado: Un documento que describa todas las estrategias de promoción planeadas, especificando qué festivales, mercados, redes sociales y medios de comunicación se utilizarán.

2º Contratos o acuerdos de participación: Copia de los acuerdos, invitaciones o confirmación de participación en festivales y mercados, que demuestren que el proyecto está inscrito o será presentado en esos eventos.

3º Material promocional de ejemplo.

4º Listado de mujeres responsables en la gestión y ejecución del plan de promoción: detallar el nombre, cargo y funciones específicas de cada mujer involucrada en la gestión y ejecución del plan de promoción. Esto incluye, por ejemplo, las responsables de marketing, comunicación, diseño, redes sociales, etc.

Se acreditará presentando, bien en la fase de solicitud o bien en la fase de justificación, los contratos de trabajo correspondientes o contratos mercantiles que certifiquen su implicación directa en el proyecto.

5º Listado de mujeres embajadoras del proyecto: detallar el nombre de las mujeres que actúan como embajadoras del proyecto (actrices, directoras, productoras, etc.) y describir brevemente su rol y participación en eventos promocionales. Se acreditará presentando, bien en la fase de solicitud o bien en la fase de justificación, la documentación de participación en festivales, entrevistas, ruedas de prensa o cualquier otro evento público donde las mujeres mencionadas hayan representado al proyecto.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6) Sustapen Planaren finantzaketa-maila.

7) Proiektuaren sustapenaren guztizko iraupenari dagokionez, euskarazko sustapenean zenbat denbora emango den adieraziko da, jardueren egutegia barne.

Euskara erabiltzen duten sustapen materialen laginak eranstea eskatu ahal izango da (flyerrak, bideoak, iragarkiak, sare sozialetako argitalpenak, etab.).

8) 27.1 e) oinarrian jasotako irizpidea egiaztatzen duen dokumentazioa; adibidez, sinopsia, proposamen tematikoa, filmatzeko egunak Bizkaian, etab. (gehienez 3 orrialde).

Adierazitako dokumentazio guztiak Bizkaiko Lurralde Historikoarekiko lotura zehaztu beharko du.

4. Nolanahi ere, egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera, honako hau bete beharko da:

a) Gastuen aurrekontu xehatua, BEZik gabe, eta diruz lagunduko den proiekturako aurreikusitako diru-sarrerak, diruz lagundu daitekeen aldiari soilik dagozkionak.

Koprodukzioen kasuan, eskatzaileari egotz dakizkiokeen gastuak eta diru-sarrerak bakarrik sartu beharko dira.

b) Eskatzaileak aurreikusitako urteko diru-sarrera guztiak, bai eta lortutako edo lortzea aurreikusten diren urteko Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntza guztien zenbatekoa ere, gardentasunaren arloan aplikatzekoa den araudia betez.

c) Proiektuaren gidoi-, zuzendaritza-, argazki-, produkzio- eta musika-jardueren arduradunen kopurua, sexuaren arabera bereizita.

d) Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen eta Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide

6º Nivel de financiación del Plan de Promoción.

7º Indicación de cuánto tiempo se dedicará a la promoción en euskera en relación con la duración total de la promoción del proyecto, incluyendo un calendario de actividades.

Se podrá solicitar que se adjunten muestras de materiales promocionales (como flyers, videos, anuncios, publicaciones en redes sociales, etc.) en los que se utilice el euskera.

8º Documentación acreditativa del criterio recogido en la base 27.1 e); por ejemplo, la sinopsis, propuesta temática, días de rodaje en Bizkaia, etc. (máximo 3 páginas).

Toda la documentación indicada deberá especificar la vinculación con el Territorio Histórico de Bizkaia.

4. En cualquier caso, se deberá cumplimentar, según modelo disponible en sede, lo siguiente:

a) Presupuesto detallado de los gastos, sin IVA, y los ingresos previstos del proyecto a subvencionar, correspondiente exclusivamente al periodo subvencionable.

En caso de coproducciones, únicamente deberán incluirse los gastos e ingresos imputables a la solicitante.

b) Los ingresos totales anuales previstos por la solicitante, así como el importe de todas las ayudas y subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia obtenidas o que se prevea obtener, en cumplimiento de la normativa aplicable en materia de transparencia.

c) Número de personas responsables en las actividades de guion, dirección, fotografía, producción y música del proyecto disgregadas por sexo.

d) Declaración sobre el cumplimiento de los requisitos legales previstos en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan eta aplikatzekoa den gainerako araudi sektorialean ezarritako legezko baldintzak betetzeari buruzko adierazpena.

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como de la normativa sectorial aplicable.

7. oinarria. *Dokumentazio egiaztagarria.*

Base 7. *Documentación verificable.*

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos necesarios para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las interesadas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Datu horiek honako hauek dira:

Los referidos datos son:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.

b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman izanaren ziurtagiria, 2.1. c) oinarrian ezarri denarekin bat.

d) Certificado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, conforme a la base 2.1.c).

e) Eskatzaileak jasotako estatuko eta minimis dirulaguntzen zerrenda.

e) Relación de subvenciones de estado y ayudas de minimis recibidas por la solicitante.

f) Dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioari buruzko informazioa.

f) Información sobre la inhabilitación para recibir subvenciones y ayudas.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada

En todo caso, si por causas técnicas la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

elkarreragingarritasunera jotzea, Kultur Ekintzako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

8. oinarria. *Eskabideak zuzentzea edo hobetzea.*

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendu elektronikoa egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

9. oinarria. *Dirulaguntzak emateko araubidea.*

Dirulaguntza horiek norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, 22., 25. eta 27. oinarrietan ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Dirulaguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu-partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik.

interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. *Subsanación o mejora de las solicitudes.*

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá electrónicamente a la solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Servicio de Acción Cultural podrá solicitar cuanta información complementaria o documentación considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

Base 9. *Régimen de concesión.*

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, a través de la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en las bases 22, 25 y 27 de este decreto foral, proponiendo la adjudicación de las subvenciones a aquéllas entidades que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu 22., 25. eta 27. oinarrietako 2. paragrafoan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei dirulaguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

En consecuencia, cuando el límite de la citada partida presupuestaria impida proponer la adjudicación de las subvenciones a la totalidad de las solicitudes que hayan obtenido la puntuación mínima establecida el apartado 2 de las bases 22, 25 y 27, se propondrá su adjudicación a las de mayor puntuación, siguiendo el riguroso orden de prelación de cada solicitud, hasta agotar la cuantía correspondiente.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuazio handieneko eskabideei dagozkien dirulaguntzak esleitu ondoren, haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien diru-laguntzen guztizko zenbatekoari erantzuteko, hauei aplikatutako dirulaguntzaren ehunekoa murriztuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

Asimismo, cuando varias solicitudes tengan el mismo orden de prelación por haber obtenido la misma puntuación y, una vez adjudicadas las subvenciones correspondientes a las solicitudes de mayor puntuación resulte que la cuantía disponible para ellas no alcance para atender el importe total de las subvenciones que les corresponden, se procederá a reducir el porcentaje de subvención aplicado a estas, hasta agotar la cuantía disponible.

10. oinarria. *Epaimahai kalifikatzailea.*

Base 10. *Tribunal calificador.*

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, eta epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez.

1. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyas personas integrantes serán designadas por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante orden foral.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonek behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko.

Las personas integrantes del mismo contarán con la capacidad técnica, administrativa, funcional y directiva suficiente para la adecuada apreciación de los requisitos exigidos en las solicitudes y valoración de los proyectos objeto de la presente convocatoria.

Halaber, izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Igualmente, se cumplirá lo establecido en el art. 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad entre Mujeres y Hombres.

2. Epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak puntuaziorik handienak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontuko partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik. Epaimahaiak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, hark behin betiko ebazpena eman dezan.

2. El tribunal calificador, propondrá la adjudicación de las subvenciones a aquellas que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria, y presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

11. oinarria. *Aholkularitza.*

Base 11. *Asesoramiento.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza emango du foru-dekretu honekin lotutako edozein zalantza edo kontsultaren gainean. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webgunean:

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral. A estos efectos se encuentra disponible la siguiente dirección en la página web:

https://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza

https://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza

12. oinarria. *Ebazpena*.

Base 12. *Resolución*.

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, ez da aurreikusten deialdi honetan interesdunei lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena emango zaienik, behin entzunaldiaren izapidea eskaini eta gero, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

1. No se prevé que en esta convocatoria se emita, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las interesadas.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du eskabideek egunean dauzkatela beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar izateagatik. Egiaztapen hori egin ondoren, ikusten bada eskatzaileren batek ez duela betetzen betebehar horietako edozein, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela, behin ebazpena emanda.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Acción Cultural comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social y que no sean deudoras por reintegro de subvención. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna solicitante incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea berrogei (40) egunekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de cuarenta (40) días, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak emango du ebazpena, horretarako izendatutako epaimahaiaren proposamena kontuan hartuta.

La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte a propuesta del tribunal designado al efecto.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresuki eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitzat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez ere helaraziko zaie foru-agindua interesdunei.

Bertan, berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio bidea amaitzen duela eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari zuzenduta, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi (2) hilabeteko epearen barruan; epe hori ere berdin zenbatuta.

13. oinarria. *Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna*

1. Foru dekretu honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, Bizkaiko Foru Aldundiak berak emandakoak izan ezik.

2. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren baten aldaketak, eta dena dela, aldi berean estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk lortzeak, dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezakete, foru dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzei doakien zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza edo laguntzaren batekin batera, inola ere ez baita izango onuradunak garatuko duen jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Foru dekretu honetan jasotako dirulaguntzak 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren mende daude. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin

posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las interesadas que hayan presentado solicitud a los efectos de esta convocatoria pública mediante publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

También se comunicará a las interesadas mediante el sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la entidad interesada interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

Base 13. *Compatibilidad con otras subvenciones*.

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales o internacionales, a excepción de las concedidas por la propia Diputación Foral de Bizkaia.

2. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones y ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, dado que el importe de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por la beneficiaria.

3. Las subvenciones contempladas en el presente decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz (2014-06-26ko AO, L 187); aurrerantzean, salbuespenen 651/2014 Erregelamendu Orokorra. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 108. artikuluaren 3. paragrafoan aurreikusitako estatu-laguntzak jakinarazteko betebeharretik salbuetsita dauden kategorien artean daude kulturarako eta ondarearen kontserbaziorako laguntzak, eta zehazkiago, ikus-entzunezko lanetarako laguntzak. Horregatik, dekretu honetan araututako dirulaguntzak 651/2014 salbuespen-erregelamendu orokorrari atxikiko zaizkio. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz.

categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (DO, L 187, de 26-06-2014), en adelante Reglamento general de exención n.º 651/2014. Entre las categorías exentas de la obligación de notificación de las ayudas de estado prevista en el apartado 3 del artículo 108 del Tratado de Funcionamiento de la UE (TFUE) se encuentran las ayudas a la cultura y a la conservación del patrimonio, y más concretamente a obras audiovisuales. Es por ello que las subvenciones reguladas en este decreto se acogerán al Reglamento general de exención n.º 651/2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado.

IV. KAPITULUA

Dirulaguntzen kudeaketa eta justifikazioa.

14. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

1. Deialdi hau ebazten duen foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamar egun baliodunera onuradunak ez badio berariaz eta idatziz emandako dirulaguntzari uko egiten, ulertuko da onuradunak onartu egin duela, eta Kultur Ekintzako Zerbitzuak dirulaguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

Onuradunen batek edo batzuek emandako dirulaguntzari uko egiten badiote, uko horrek ez du inola ere ekarriko deialdi honen ebazpenaren baldintzak aldatzea.

2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, onuradunek tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Halaber, egiaztatuko da ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan,

CAPÍTULO IV

Gestión y justificación de las subvenciones

Base 14. *Pago de la subvención.*

1. Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia" de la orden foral que resuelve la presente convocatoria la beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, y el Servicio de Acción Cultural procederá a tramitar su abono ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las beneficiarias.

Si alguna o algunas beneficiarias renunciasen a la subvención concedida, dicha renuncia no implicará en ningún caso la modificación de los términos de la resolución de la presente convocatoria.

2. Previo al pago de la subvención, se comprobará que las beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no sean deudoras por reintegro de subvención.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna beneficiaria incumple cualquiera de las obligaciones señaladas, esta será requerida para que en el plazo de diez (10) días

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: QVNV-766V-J6PI-K16I
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

15. oinarria. *Onuradunak eskatutako itzulketa.*

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza, foru-erakundeak aurretik eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

2. Onuradunak ordainketa-gutun bat erabili behar du dirulaguntza bere ekimenez itzultzeko. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskabidea aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta dirulaguntza itzultzeko arrazoia. Hori guztia itzuli behar den dirulaguntzari erreferentzia eginez adieraziko da.

3. Dirulaguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, egoitza elektronikoaren bidez diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

16. oinarria. *Justifikazioa egiteko epea eta era.*

Foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean dirulaguntza ematea eragin zuen proiektua garatzea.

regularice dicha situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida.

Base 15. *Devolución a instancia de la beneficiaria.*

1. De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última.

En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

2. La devolución de la subvención a instancia de la propia beneficiaria, se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Acción Cultural. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

3. Una vez practicado el abono por la beneficiaria de la subvención en una entidad financiera, habrá de remitirse a través de la sede electrónica justificante del respectivo ingreso al Servicio de Acción Cultural del departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Base 16. *Plazo y forma de justificación.*

Las beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral se comprometen a:

